Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

HERRIZAINGO SAILA

49

EBAZPENA, 2009ko abenduaren 10ekoa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegian hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia ebazten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegian hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egin zuen Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2009ko irailaren 28ko Ebazpenaren laugarren oinarrian agindutakoaren arabera (2009ko urriaren 9ko EHAA), hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Sorkunde Vez Bilbao andrea goikargudunaren idazkari izendatzea Euskal Herriko Poliziaren Ikastegian (kodea: 520010; dotazioa: 112).

Bigarrena.– Izendapen honek jabetza hartzen denetik izango ditu ekonomia eta administrazio-ondorioak. Jabetza, nolanahi ere, 2009ko abenduaren 11n hartu beharko da.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio agindua eman duen organoari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiari, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Arkaute, 2009ko abenduaren 10a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
JUAN DE DIOS URIARTE ARCINIEGA.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

49

RESOLUCIÓN de 10 de diciembre de 2009, del Director de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se resuelve la convocatoria para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante, en la Academia de Policía del País Vasco.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 46.2.c) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y en la base cuarta de la Resolución de 28 de septiembre de 2009 (BOPV de 9 de octubre de 2009) del Director de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se anuncia la convocatoria para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante, en la Academia de Policía del País Vasco,

DISPONGO:

Primero.– Nombrar a Dña. Sorkunde Vez Bilbao, como Secretaria de Alto Cargo, código 520010, dotación 112, en la Academia de Policía del País Vasco.

Segundo.– Dicho nombramiento surtirá efectos económicos y administrativos a partir de la toma de posesión, que deberá producirse el día 11 de diciembre de 2009.

Tercero.– Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Cuarto.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrá interponerse, recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano que lo hubiere dictado en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Arkaute, a 10 de diciembre de 2009.

El Director de la Academia de Policía del País Vasco,
JUAN DE DIOS URIARTE ARCINIEGA.